

EBAZPENA, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak emana, unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko aukera arriskuan jartzen duten zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzako lankidetza-beken 2026-2027 ikasturterako deialdia onesten duena.

Ikusirik Zerbitzu Juridikoaren txostena.

Ikusirik Ekonomia Gaietarako Zerbitzuaren txostena.

Aurrekontuan horretarako dirua badela kontuan harturik.

Sarbidearen, Beken eta Tituluen Ataleko buruaren txostena ikusirik, Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak proposaturik.

Barne Kontrolerako Zerbitzuak aldeko fiskalizazioa eginda.

Errektoretza-taldearen egitura orokorra eta eginkizunak onesten dituen 2023ko ekainaren 20ko 1306/2023 Ebazpenaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak delegatu dizkidan eskudantziak erabiliz –ebazpen hori Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen 2025eko otsailaren 25eko 351/2025 Ebazpenaren, 2025eko maiatzaren 26ko 1026/2025 Ebazpenaren, 2025eko ekainaren 4ko 1101/2025 Ebazpenaren eta 2026ko apirilaren 28ko 879/2026 Ebazpenaren bidez aldatu zen–,

EBAZTEN DUT:

Lehenbizikoa.- Saitetarako lankidetza-beken 2026-2027 ikasturterako deialdia onestea unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko aukera arriskuan jartzen duten zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzat. Deialdi hori eranskin gisa doazen oinarriei egokituko zaie.

Bigarrena.- 7.500 euroko gastua baimentzea, 2026ko gastuen aurrekontuko "52.00/0540/480.01 Lankidetza-bekak" partidaren kargura (espediente zk.: 2026/0001837).

Hirugarrena.- Guztira 9.375 euroko gastua baimentzea, 2027. urteko Unibertsitatearen aurrekontuetan horretarako gaitutako partidaren kargura, 2026. urteko "52.00/0540/480.01 Lankidetza-bekak" izeneko partidaren antzekoa. Zenbatekoa handiagotzeko aukera egonen da, aurrekonturik badago.

Laugarrena.- Deialdi honetako aurrekontu kudeaketarako beharrezkoak diren kredituen doikuntzak edo liberazioak Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordearen esku geldituko dira.

Bosgarrena.- Beka hauek lan errendimenduak dira PFEZari dagokionez, eta ez dute atxikipenik, baina nahitaezkoa da onuradunek IFZa (NANa, AIZa) indarrean izatea.

Seigarrena.- Ebazpen hau Kontabilitate Atalari, Aurrekontuen Atalari, Gizarte Kontseiluaren Ekonomia Batzordeari eta Barne Kontrolerako Zerbitzuari aditzera ematea.

Zazpigarrena.- Ebazpen hau eta haren eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoko ofizialean argitara daitezela agintzea.

Zortzigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta haren kontra zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dokumentu hau honako honek sinatu du digitalki:

Begoña Pérez Eransus

Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko
errektoreordea

ERANSKINA, ebazpen honena: “Ebazpena, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak emana, unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko aukera arriskuan jartzen duten zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzako lankidetzaren 2026-2027 ikasturterako deialdia onesten duena”.

Urtero egiten da lankidetzaren beka izeneko beka-modalitateko deialdia. Beka horien xedea da arazo ekonomikoengatik unibertsitateko ikasketetan jarraitzea arriskuan dutela egiaztatzen duten ikasle unibertsitarioei sailetan lankidetzaren aritzeko modua ematea, ezartzen diren betebeharren arabera eta beren ikasketekin bateragarri eginez.

Beka-modalitate hori oso interesgarria da bai sailentzat, baita ikasleentzat ere, azken horiei aukera ematen dielako beren ikasketekin lotura zuzena duten egitekoak ezagutzeko eta, aldi berean, beren ezaguerak sakontzeko.

I. KAPITULUA

Hartzaileak eta ezaugarriak

1. oinarria.- Xedea eta hartzaileak.

1.-Deialdi honen xedea da beka bat esleituz unibertsitateko sailetan ikerketa-lanetan has daitezela gradu eta masterreko ikasketak ofizialeko ikasleak, arrazoi ekonomikoengatik unibertsitateko ikasketetan jarraitzeko aukera arriskuan dutela egiaztatzen dutenak. Ikasleei egiten ari diren ikasketekin lotutako lanak esleituko zaizkie, gerora hartuko duten orientazio profesionala eta ikerketakoa erraztearren.

2.-Eskara egin duen ikasleak edo ikaslearen unitate familiarak arazo ekonomikoak izan behar ditu, ikasleak unibertsitateko ikasketekin jarraitzea arriskuan jartzeko modukoak.

2. oinarria.- Beka kopurua eta finantzaketa.

1.-15 lankidetzaren bekatarako deialdia egin da 2026-2027 ikasturterako, eta lehiaketa bidez esleituko dira. Gradu ikasleentzat izanen dira horietatik 10, eta 5, berriz, masterreko ikasleentzat.

Deialdi horren barnean, gradu ikasleentzat zuzendutako beken artean baten bat esleitu gabe gelditzen bada, masterreko ikasleentzat izanen da, eta alderantziz.

Masterrean onartuak dauden baina hartarako sarbidea ematen duen gradua oraindik bukatu ez duten ikasleei dagokienez, haien eskaerak gradu ikasleak balira bezala tratatuko dira, eta gradu ikasleei zuzenduriko 10 bekekin egonen dira lehian.

2.-Onuradunen kopurua deialdiko 15 beken baina txikiagoa baldin bada, esleitu gabeko beken zenbatekoa Nafarroako Unibertsitate Publikoaren sailerako lankidetzaren beken beste deialdira gehituko da, hau da, beka esleitzekoan zailtasun ekonomikoak kontuan hartzen ez dituen deialdira.

3.-Zailtasun ekonomikoak kontuan hartzen ez dituen deialdian esleitu gabeko bekak deialdi honetara etortzen badira –beste deialdiaren 2. oinarriaren 2. apartatuan adierazten da–, zilegi izanen da beka kopurua handitzea.

Gerta daitekeen handitze horri begira, bekadunak hautatzeko organoak eskatzaileen itxaron zerrenda bat ezarriko du puntuazioaren arabera.

4.-Beken zenbatekoa 16.875,00 eurokoa da, eta horietatik 7.500,00 euro honako partida honetarako ezarri den kredituaren kargura ordainduko dira: 2026ko gastuen aurrekontuko “52.00/0540/480.01 Lankidetzak-bekak” partida (espediente zk.: 2026/0001837). Gainerako 9.375,00 euroak Unibertsitatearen 2027ko aurrekontuetan horretarako eratuko den aurrekoaren antzeko partidaren kargura ordainduko dira.

5.-Beka kopurua handiagotzeko aukera egonen da, aurrekonturik badago.

3. oinarria.- Bekaren zenbatekoa.

1.-Onuradun bakoitzak 1.125,00 euro jasoko ditu. Bekaren zenbatekoa aldi hauetan ordainduko da ikaslearen kontuan: 500,00 euro 2026ko abenduan, eta gainerako 625,00 euroak behin lankidetzak lankidetzak-proiektuan ezarritakoaren arabera burutu ondoren eta egindako lanei buruzko txostena aurkeztu ondoren, deialdi honetako 14. oinarrian ezarritakoarekin bat etorritik.

2.- Beka hori emateak ez du esan nahi onuradunari irakaskuntza-zerbitzuak direla-eta ordaindu beharreko prezio publikoak murriztuko zaizkionik, ezta haiek ordaintzetik salbuetsita dagoenik ere.

4. oinarria.- Beken araubidea. Bateriaezintasunak.

1.-Beka hauek bateraezinak izanen dira edozein lankidetzak-bekarekin edo mugikortasun programa baten esleipenarekin, deialdia egin duen entitatea edozein dela ere, baldin eta aldi berean egiten badira. Eskerak aurkezteko epea bukatzen den egunean esleipen horietakoren bat duten eskatzaileak baztertu egingen dira.

2.-Bekadunak egingen duen lankidetzak zuzeneko zerikusia izanen du bere ikasketekin, eta ez du inola ere ekarriko lan edo administrazio harremanetakoak diren lanak egin beharrik.

3.-Lankidetzak-beka bat edukitzeak ez du legezko ondoriozko edo lan ondoriozko sortuko onuradunaren eta Unibertsitatearen artean.

4.-Ikasle bakoitzari beka bakarra esleitzen ahalko zaio, 10. oinarrian azaldutako irizpideei jarraituz. Pertsona berak ezin izanen du batera eskuratu lankidetzak-beka bat baino gehiago.

5.- Saileko irakasle baten tutoretzapean emanen da lankidetzatza (biren tutoretzapekoan gehienez), eta gutxienez horietako batek bekaduna matrikulatuta dagoen titulazioan eman behar ditu eskolak. Ikasle bekadunak titulazioan ematen diren irakasgai batekin edo batzuekin lotutako gaitasun espezifikoak garatuko ditu lankidetzaren bidez.

5. oinarria.- Ikasle hautatuen betebeharrak.

Beka honen onuradunak diren ikasleek betebeharrak hauek izanen dituzte:

- a) Eskaerak aurkezteko epea amaitzean eta beka egiten den aldi osoan bekaren esleipendun izateko betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea.
- b) Beka emateko baldintzak betetzen dituztela eta baldintzak eraginkorrak direla egiaztatze beharrezkoak diren frogajarduerak egitea.
- c) Nafarroako Unibertsitate Publikoan egiten ari den ikasketa ofizialetan matrikulaturik egon beharko du beka egiteko aldi osoan esleipendunak, eta prezio publikoak ordainduak eduki beharko ditu.
Horri begira eta beren ikasketak 2026-2027 ikasturtean amaitu behar dituzten ikasleentzat, beka egiteko aldi osoan matrikulatuta daudela ulertuko da, betiere azken kredituak 2027ko apirilaren 30a baino geroago gainditzen badituzte.
- d) Betebeharrak hori baztertu gabe, 2026-2027 ikasturterako zailtasun ekonomikoak dituzten ikasleentzako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren matrikularako laguntzak eskatu dituzten ikasleek ez dute egiaztatu beharko prezio publikoak ordainduta dituztela.
Matrikularako laguntzen deialdi horretako behin betiko ebazpenaren biharamunetik kontatzen hasita hilabeteko epean egiaztatu beharko dute ikasle bekadunek ordaindu dituztela prezio publiko horiek.
Nafarroako Unibertsitate Publikoak zailtasun ekonomikoak dauzkaten ikasleentzako 2026-2027 ikasturterako dituen matrikula laguntzen deialdia 5. oinarrian ezarritako epearen ondoren egiten bada, laguntza horiek eskatzeko borondatea dutela adierazi beharko dute ikasleek, eta, behin deialdia egin eta gero, garaiz eta forman eskatu eta prezio publikoak ordaindu dituztela egiaztatu beharko dute hilabeteko epean matrikula laguntzen deialdi honetako behin betiko ebazpenaren biharamunetik kontatzen hasita.
- e) Lankidetzatza 7. oinarrian adierazitako lankidetzatza-proiektuan ezarritako moduan garatzea, 13. oinarrian adierazitako epeetan eta arduraldi motarekin.
Onuradunak bere lankidetzatza bertan behera uzten badu, lehenbailehen jakinarazi beharko dio Sarbidearen, Beken eta Tituluaren Atalari, zeinak jasotako zenbatekoa itzultzeko eskatuko baitio beharrezkoa bada.
- f) Bekaren iraunaldian egindako lanek buruzko txostena aurkeztea Unibertsitatearen erreregistro elektronikoan, 14. oinarrian ezarritako baldintzetan eta epean.

II. KAPITULUA

Bekak jasotzeko betebeharrak

6. oinarria.- Eskatzaileek bete beharreko betebeharrak.

1. 2026-2027 ikasturtean matrikula Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasketa ofizial hauetakoren batean formalizatu duten ikasleek jasotzen ahalko dute lankidetzabeka:

- a) Gradu ikasketa unibertsitario ofizialetan matrikulatutako ikasleak, gradu, masterreko, doktoretzako, lizentziako, ingeniarietako, arkitekturako titulurik edo maila baliokideko atzerriko titulu akademiko ofizialik ez dutenak edo titulu hori eskuratzeko legezko xedapenik ez dutenak.

Graduko edo gradu bikoitzeko ikasleek beka eskuratzeko aukera izanen dute baldin eta ikasketak bukatzeko kredituen erdiak edo gutxiago gelditzen bazaizkie, Gradu Amaierako Lanari dagozkion kredituak barne.

Gradu bikoitz batean matrikulatutako ikasleek ere aukera izanen dute lankidetzabeka jasotzeko, nahiz eta ikasketa ofizialen programa osatzen duten tituluetako bat eduki edo titulu hori eskuratzeko legezko xedapena izan.

- b) Masterreko ikasketa ofizialetan matrikulatuta dauden ikasleak, masterreko edo doktoretzako titulurik edo maila baliokideko atzerriko titulu akademiko ofizialik ez dutenak edo titulu hori eskuratzeko legezko xedapenik ez dutenak.

Ikasle horiek 2026-2027 ikasturtean masterreko lehen ikasmailako irakasgai edo kreditu guztietan edo amaitzeko falta diren kreditu guztietan egon behar dute matrikulatuta, Master Amaierako Lana barne.

Master bikoitz batean matrikulatutako ikasleek ere aukera izanen dute lankidetzabeka jasotzeko, nahiz eta ikasketa ofizialen programa osatzen duten tituluetako bat eduki edo titulu hori eskuratzeko legezko xedapena izan.

2.- Deialdiko bekak lan errendimenduak dira PFEZari dagokionez, eta ez dute atxikipenik. Beraz, beka-eskaera aurkezten duenean, beka lortzeko aukera izateko, indarrean dauden dokumentu hauetako bat eduki beharko du ikasleak: nortasun agiri nazionala (NANA), atzerritarraren identifikazio zenbakia (AIZA), edo, legez dagokionean, identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZA).

Dokumentu horren indarraldia beka bukatu baino lehen bukatzen bada, kaltetutako pertsonak hura berriro duela egiaztatu beharko du lankidetzako bekadun izaten jarraitzeko, dokumentu berria aurkeztuta.

7. oinarria.- Lankidetzaproiektua.

1.-Hautatutako sailean martxan den ikerketa-lerroetako baten barrenean garatu beharreko lankidetzaproiektu batean gauzatuko dute beka ikasleak. Proiektu horrek egin beharreko lanak deskribatuko ditu, eta berariaz aipatuko du prestakuntzako zer eragin osagarri izanen duen bere garapenak eskatzailea egiten ari den titulazioaren irakasgaiei lotzen zaizkien gaitasun espezifikoetan, eta sailak hura abalatu eta 0 puntutik

4 puntura bitartean puntuatu beharko du. Sailek aurreko eskakizun horiek betetzen dituzten proiektuak abalatu eta puntuatuko dituzte.

2.- Berme hori emateko, sail bakoitzak eduki hauek hartu beharko ditu kontuan aurkeztu diren proiektuak ebaluatzeko:

- a) Proiektuaren eduki berritzailea, puntu 1 gehienez ere.
- b) Sailean garatu beharreko lanaren aplikazioa, 1 puntu gehienez ere.
- c) Etorkizuneko lankidetzak- edo ikerketa-proiektuetan jarraitzeko aukera, puntu 1 gehienez ere.
- d) Teknologia berriak sartzea lan metodoetan, puntu 1 gehienez ere.

Behar den bermea ez duten proiektuek, puntuatzen ez direnek edo 0 puntu lortzen dutenek ezin izanen dute bekarik lortu.

8. oinarria.- Lankidetzak-proiektuaren aldaketa.

1.-Tutoreak edo tutoreek behar bezala justifikatutako arrazoiak direla-eta ezinezkoa bada jatorrizko proiektua aurkeztu eta onartu zen moduan egitea edo jarraitzea, proiektuaren aldaketa edo proiektu berri bat aurkeztu ahal da, tutorearen edo tutoreen eta bekaren onuradunaren sinadura elektronikoen, sailak behar bezala abalatu, Unibertsitatearen erregistro elektronikoan.

2.-Proiektuen aldaketak edo proiektu berriak bekaren lehen hilabetearen baizik ezin izanen dira aurkeztu, hau da, azaroan.

3.-Aldaketa edo aurkeztutako proiektu berria Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko Errektoreordetzara bidaliko dira, eta errektoreordetza horrek proposamenaren eskaerari eta onarpenari buruzko ebazpena emanen du 5 eguneko epean.

4.-Ez da onartuko aurreko apartatuetan ezarritakoa betetzen ez duen proiekturik edo proiektu berririk, eta, kasu horietan, deialdi honetako 13.4 oinarrian uko egiteko edo bertan behera uzteko ezarritako ondorio berak izanen ditu bekaren kobrantzari eta itzulketari dagokienez.

III. KAPITULUA

Prozedura-arauak

9. oinarria.- Eskaerak eta dokumentazioa.

1.- Lankidetzak-bekaren eskaera deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik **2026ko urriaren 7ra bitartean** aurkeztuko da, eskabide elektroniko

bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoaren esteka honen bidez, eta hori da aurkezteko balio duen bide bakarra:

<https://sedeelectronica.unavarra.es/oficina/tramites/acceso.do?id=9265&entity=1096>

2.-Onartua izateko, eskabide elektronikoa dokumentu hauekin batera aurkeztu beharko da:

- a) Lankidetzat-bekaren eskaeraren inprimakia, Unibertsitatearen egoitza elektronikotik deskargatu beharrekoa 1. apartatuan adierazitako estekaren bidez.
- b) Erantzukizunpeko adierazpena, Unibertsitatearen egoitza elektronikoan –1. apartatuan adierazitako estekan–, argitaratutako ereduaren arabera. Erantzukizunpeko adierazpen horren bidez, interesdunak bere ardurapean adierazten du, batetik, bete egiten dituela beka jasotzeari buruz deialdiak ezarritako betebeharrak; bigarrenik, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, eta Unibertsitateari helaraziko diola hala eskatzen zaionean; eta, hirugarrenik, konpromisoa hartzen duela aipatutako betebeharrak horiek bekaren ekitaldi osoan betetzeko.
Erantzukizunpeko adierazpen horretan jasotako datuen edo informazioen bat zehatza ez bada, faltsua bada edo aipatzen ez bada, edo adierazpena bera edo aitortutakoa betetzen duela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa Unibertsitatean aurkeztzen ez badu, ez da onartuko bere eskaera, eta, kasu horretan, beka baliogabetu egingen zaio eta ordaindu zaion diru kopurua itzuli egin beharko du.
- c) Lankidetzat-proiektua, sailak behar bezala abalatua eta puntuatua eta, 7. oinarrian ezarritakoaren arabera, saileko zuzendariak elektronikoki sinatua. Proiektuaren inprimakia 1. apartatuan adierazitako estekatik deskargatuko da.
Proiektua zer sailetan garatuko den, sail horretako kontseiluak behar bezala abalaturik eta puntuaturik aurkeztu beharko da, osoko bilkuran edo batzordean bilduta, deialdi honen 7. oinarrian zehaztutakoarekin bat etorriz. **Proiektua ez bada aurkeztzen deskribatutako baldintzetan eskaerak aurkezteko epearen barruan, beka ezetsi egingen da.**
- d) Eskatzaileak masterrera sarbidea ematen dion titulazioa atzerrian ikasi badu, unibertsitateko atzerriko ikasketen batez besteko notaren baliokidetasunaren aitortzea aurkeztu beharko da. Baliokidetasun hori Zientziaren, Berrikuntzaren eta Unibertsitateen Ministerioaren webgunean lortu beharko da, esteka honen bidez:
https://universidades.sede.gob.es/pagina/index/directorio/Equivalencia_notas_medias/language/eu_ES
- e) Aurreko dokumentazio horrekin batera, eskatzailea zailtasun ekonomikoko egoeran dagoela eta egoera horrek unibertsitateko ikasketekin jarraitzeko aukera arriskuan jartzen duela frogatzeko behar diren frogagiriak aurkeztuko dira:
 - Errentaren azken aitortpen osoa, datu fiskalak barne.

- Errentaren azken aitortpenaren ondotik dokumentu horretan ageri ez den bat-bateko egoeraren bat izan bada, egungo diru-sarrerak egiaztatzen dituzten dokumentuak aurkeztu beharko dira, dagokionaren arabera:
 - Diru-sarreraren ziurtagiria, unitate familiarrean baliabide ekonomiko kontagarriak sorrarazten dituen pertsonak (edo pertsonak) lantoki izan dituen enpresak egina, egoki denaren arabera.
 - Eskatzailearen aitaren edo amaren pentsioari edo aldi baterako ezintasuneko sorospenera dagozkion diru-sarreraren ziurtagiria, egoki denaren arabera.
 - Unitate familiarreko egoera sozioekonomikoaren ziurtagiria, Gizarte Zerbitzuek egina.
 - EINen ziurtagiria, esleitutako prestazioa, bere iraupena eta zenbatekoa zehazten dituen.
 - Unitate familiarreko kide konputagarri guztien lan bizitza osoa eta eguneratua, Gizarte Segurantzak egina.
 - Zailtasun ekonomikoko egoera egiaztatzen duten bestelako dokumentuak (ikasle bakoitzari esanzen zaio zein diren, azaldu duen egoeraren arabera).
- Horretarako, Dibertsitatearen eta Inklusioaren Unitateak zilegi du aldeko txostena egiteko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentuak eskatzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabide orokorrak aurreko dokumentu horietako bakoitzaren azterna digitala erantsi beharko dio eskatzaileak bere zintzotasuna egiaztatzeko. Hala, eskatzaileak eskabidearekin batera horiek guztiak ere sinatu dituela ulertuko da.

5.-Unibertsitateak edozein unetan eska diezaioke betebeharrak horiek betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkezteko, eta hura aurkeztu egin beharko du interesdunak.

6.-Eskaera aurkezteak deialdiaren oinarriak onartzea dakar berekin.

10. oinarria.- Aukeratzeko prozedura.

1.-Aurkeztu diren eskaerak eta bekaduna izateko proposamenak aztertzeko lankidetzak bekadunak aukeratzeko organoa eratuko da, errektoreak 2025eko ekainaren 19an emandako 1233/2025 Ebazpenaren bidez izendatua.

Bekadunak aukeratzeko organoak proiektuetan aipatutako funtzioak aztertzeko ahalmena izanen du, eta zilegi izanen du bekaren xedea betetzen ez dutenak edo garatu beharreko eginkizunak argi eta garbi zehazten ez dituztenak, bai eta abalatuta eta puntuatuta ez daudenak ere, baztertzeko erabakia hartzea, eta lankidetzaren bidez zabaldu nahi den prestakuntza ematen duten irakasgaiaren edo irakasgaien gaitasun espezifikoekin lotuko ditu.

2.-Bekak honako irizpide hauen arabera esleituiko dira:

- a) Bekadunak aukeratzeko organoak elementu hauen baturaren arabera ordenatuko ditu abalatutako eta puntuatutako eskaerak: 1) Eskatzaileak lortu

duen espediente akademikoaren batez besteko nota, hurrengo oinarriak esaten duen bezala kalkulatu; 2) Proiektuari behar bezala abalatuta emandako puntuazioa; eta 3) Dibertsitatearen eta Inklusioaren Unitateak emandako puntuazioa, oinarri honen 3. apartatuan ezarritakoari jarraikiz.

- b) Lankidetzak-bekadunak aukeratzeko organoak beka bat esleituko dio eskaeraren bat duen sail bakoitzari, eskatzaileen puntuazio osoen hurrenkeran, dauden guztiak esleitu arte.
- c) Aurreko apartatuak ezartzen duena aplikatuz esleitu ezin izan diren bekak berriz esleituko dira, irizpide beraren arabera.
- d) Ez badago beka nahikorik eskaeraren bat duten sail guztientzat, oinarri honen a) puntuaren arabera lortutako puntuazioa kontuan hartuta esleituko zaizkie bekak sailei.
- e) Berdinketa gertatuz gero, kalifikazio hauetan hurrenkera honetan kreditu gehien dituztenei emanen zaie lehentasuna: "ohorezko matrikula", "bikain", "oso ongi" eta "gainditua".

3.-Dibertsitatearen eta Inklusioaren Unitateak sei puntu emanen dizkio gehienez eskatzaile bakoitzari, aurkeztutako dokumentazioaren arabera, unibertsitateko ikasketekin jarraitzea arriskuan jartzen duen zailtasun ekonomikoko egoera egiaztatzeko.

- a) Egoera ekonomikoa: 4 puntu gehienez ere.
1 eta 4 puntu bitarte esleituko dira, deialdi honen eranskinean zehazten diren errenta familiarraren atalaseen arabera.
Unitate familiarraren errenta zehazteko, Hezkuntzako Estatu Idazkaritzak 2026-2027 ikasturterako beka orokorren deialdian derrigorrezkoen ondoko ikasketak egiten dituzten ikasleentzat ezartzen dituen irizpideak aplikatuko dira.
- b) Errenta familiarraz gain, ikasleen bizikidetzak-unitatearen egoera pertsonala eta sozioekonomikoa larriagotzen duten beste egoera sozial batzuk ere baloratuko dira, 2 punturekin gehienez; besteak beste: luzaroko langabezia, zurratasuna, guraso bakarreko familiak, osasun arazoak, etxegabetzeak, errenta bermatua jasotzea edo zailtasun ekonomikoak larriagotzen dituen beste edozein egoera edo zirkunstantzia.

11. oinarria.- Ikasketa-espedientearen batez besteko notaren kalkulua.

1.-Eskatzaile bakoitzaren ikasketa-espedientearen batez besteko nota kalkulatzeko, kredituen sistema europarra eta lurralde nazional osoan ofizialak eta baliodunak diren unibertsitate titulazioetako kalifikazio sistema arautzen duen 2003ko irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuan ezarritakoa aplikatuko da.

2.-Espedientean ez badago kalifikazioa zenbakien bidez adierazita, erdietsitako kalifikazioen balorazioa honako baliokidetzak-taulan azaltzen denarekin bat etorritu egingen da:

Ohorezko matrikula: 10,00 puntu.

Bikain: 9,00 puntu.

Oso ongi: 7,50 puntu.

Nork onetsia: 5,50 puntu.

3.- Honako arau hauei jarraituko zaie batez besteko nota kalkulatzeko:

- a) Onartu edo baliokidetu diren kredituak eta egokitu diren kredituak jatorrizko ikastegian ikasleak izan duen kalifikazioarekin batera zenbatuko dira. Erdietsitako kalifikazioa zehazten ez denean, 5,50 punturekin baloratuko dira gaingituak.
- b) Masterreko titulazioak direnean, batez besteko nota kalkulatzeko, sarbidea eman zuen titulazioan erdietsitako kalifikazioak hartuko dira kontuan.
- c) Irakaskuntza-betebeharrak betetzeko, eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean espedientean azaltzen direnak baizik ez dira kontuan hartuko.

12. oinarria.- Behin-behineko argitalpena, erreklamazio epea eta behin betiko ebazpena

1.- **2026ko urriaren 15ean** parte-hartzaile guztiei ohar elektroniko indibidual bat bidaliko zaie Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoko herritarren karpeta bidez, eta hartan adieraziko da norbere eskaeraren behin-behineko ebazpena eta zer bekatarako izan den onartua den edo, hala badagokio, zergatik ezetsi zaion eskaera.

2.- **2026ko urriaren 16tik 26ra bitarte** izanen da epea behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko. erreklamazioak eskabide orokor baten bidez aurkeztuko dira, Sarbidearen, Beken eta Tituluaren Atalari zuzendua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoen bidez bidalia.

3.- Behin-behineko zerrendaren aurkako erreklamazioak ebatzi ondoren, beka edukitzeko hautatu diren ikasleen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Ikasle bekadunak izendatzeko ebazpena behin-behineko ebazpenaren bide beretik jakinaraziko da, hau da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren egoitza elektronikoko herritarren karpeta bidez eta modu indibidualean, **2026ko urriaren 29an**.

4.- Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, ikasle bekadunak izendatzeko ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta, haren aurka, zilegi da aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, edo, bestela, aukeran, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, biak ere jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Esleipenaren ebazpena aditzera eman eta gero, beka esleitu zaien ikasleek bekari dagozkion lanak eginen dituzte, 13. oinarriak ezartzen duenaren arabera. Ikasleren batek uko egiten badio bekari, beka hori eman gabe geldituko da.

13. oinarria.- Bekak gauzatzeko epea eta beken ordainketa.

1.- Bekari dagozkion lanak sei hilabeteko epean egin behar dira, **2026ko azaroaren 3an hasi eta 2027ko apirilaren 30era arte**.

2.-Ikasle bekadunak asteen 9 orduz aritu beharko du lankidetzan destinoko sail edo ikastegiarekin, lanean hasten den egunetik kontatzen hasi eta bekaren iraunaldi osoan, lankidetzaproiektuan ezartzen diren baldintzetan. Lankidetzapresentziala izanen da, eta ezin izanen da urrutitik egin mugikortasun programa batean lortu delako edo tartean beste arrazoi bat dela-eta.

Ordutegia ikasle bekadunekin adostuko da, eta eskoletara joateko aukera errespetatuko zaie. Bekadunak ezin izanen du inoiz bere ordutegia beste zeregin batzuen baldintzapean jarri esanez Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikulatuta dagoen ikasketetako titulazioak eskatutakoak ez diren beste jarduera batzuk egiten ari dela.

Bekadunek ez dute lankidetzalanik egingen Gobernu Kontseiluak 2026-2027 ikasturterako onetsi duen irakaskuntza-egutegian dauden festa-egunetan eta eskolarik gabeko egunetan.

3.-Emandako bekari dagokion zenbatekoa ikasle bekadunak eskaerarekin batera emandako kontu zenbakira transferituko da, eta deialdi honen 3. oinarrian ezarritako aldietan ordainduko da. Bigarren ordainketa 2027ko ekainean egingen da.

4.-Ikasleak, lankidetzaproiektuan ezartzen dena bete ez, eta bekari uko egiten badio edo uzten badu, bekarako ezarri diren diru kopuruak ez zaizkio ordainduko, eta jasotako diru kopuruak itzuli beharko ditu.

Eskatu arren ez badu dirua itzultzen, eta 63E/2026 Foru Aginduaren eranskinaren 7.1 artikuluan ezarritakoaren arabera –63E/2026 Foru Agindua, 2026ko ekainaren 8koa, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak emana, Nafarroako Unibertsitate Publikoan titulu ofizialak eskuratzeko zerbitzu akademikoengatik eta gainerako eskubideengatik 2026-2027 ikasturtean ordaindu beharreko prezio publikoak finkatzen dituen–, matrikula egin, tituluak edo ziurtagiriak eman edo beste edozein administrazio kudeaketa egin aurreko baldintza modura, Unibertsitateak ikasleari aurreko matrikulengatik edo beste edozein kontzeptuengatik kobratzeko dauden zenbatekoak ordaintzeko eskatuko dio.

14. oinarria.- Began egindako jardueren txostena, nahitaez aurkeztu behar dena.

1.-**2027ko maiatzaren 3tik 7ra bitarte,** ikasle bekadunek bekaren iraunaldian gauzatutako zereginei buruzko txosten bat aurkeztuko dute, eta berariaz adierazi beharko dute zein irakasgairekin (batekin edo gehiagorekin) dauden lotuak egindako lankidetzan, lortutako prestakuntza eta proiektua gauzatzearen ondoriozko emaitzak. Txostena bidaltzeko, eskabide orokor bat egin beharko dute Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoaren bidez, eta Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalari zuzenduko diote. Bekadunak berak aukeratuko ditu txostenaren formatua eta luzera.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren erregistro elektronikoaren bidez aurkeztutako eskabide orokorrak txostenaren azterna digitala edukiko du, eskatzaileak erantsitakoa

bere zintzotasuna egiaztatzeko. Hala, eskatzaileak eskabidearekin batera txostena ere sinatu duela ulertuko da.

2.-Ez da onartuko aurkezpenerako ezarritako epea eta modua betetzen ez duen txostenik. Txostena oinarri honetan ezarritakoarekin bat etorritik aurkeztu ez duten bekadunek ez dute bekaren zenbatekoa kobratuko.

3.-Bestalde, Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalak sail bakoitzari frogagiria eskatuko dio egiazta dezan txostena aurkeztu duten ikasleek egiaz egin dutela lankidetzaproiektua deialdi honetan eta ezarritako baldintzetan.

4.- Oinarri honetan aipatu diren txostenak eta frogagiriak ondorioak izanen dituzte emandako dirulaguntza justifikatzeko, Dirulaguntzei buruzko 2005eko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritakoak. Bi horiek aurkeztu eta gero ordainduko da beka. Dirulaguntza ez bada ezarritakoaren arabera justifikatzen, ordaindutako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, eta galdu egingen da ordaindu gabe daudenak kobratzeko eskubidea, eta 13.4 oinarrian ezarritako ondorioak aplikatuko dira eskatutako itzulketa egin ezean.

15. oinarria.- Sailen betebeharrak.

1.-Saileko kontseiluei dagokie, osoko bilkuran edo batzordean bilduta, ikasleek aurkeztutako lankidetzaproiektuak ebaluatu eta, hala badagokio, abalatu eta puntuatzea, deialdi honen 7. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

2.-Irakasle tutoreei eta bekadun bakoitzak bekaren lanak egin behar dituen sail eta ikastegiei dagokie ikuskatzea ikasle bakoitzak bere beka garatzen duela eta betetzen duela esleitu zaion lankidetzalana, eta Ikasleen Gaietarako, Enplegu eta Ekintzailatzako errektoreordeari jakinarazi behar diote 5. oinarrian ezartzen diren betebeharrak ez badira bete, espedienteak irekitzeko, eta, hala badagokio, eman den bekaren dirua itzultzeko.

Ez-betetzea gertatu dela baieztatzen denean egin beharko da komunikazioa Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeari zuzendutako txostenaren arabera, eta ez-betetze horren gorabeherak adieraziko dira.

3.-Sail bakoitzak Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalera bidali beharko du, azaroko azken astean, sailean beka egiten ari den ikasle esleipendun bakoitzak beka bete duela egiaztatzen duen agiria, dagokion lankidetzaproiektuan ezarritako moduan. Egiaztatze hori beharrezkoa izanen da deialdiaren 3. oinarrian aipatzen den 500 euroko zenbatekoa kobratzeko eta beka bukatzen den arte egiten jarraitzeko.

4.-Halaber, bekaren iraunaldi osoa amaitu eta gero, sail bakoitzak Unibertsitateko Sarbidearen, Beken eta Tituluen Atalera bidaliko du beka egin izanaren frogagiria, txostena garaiz eta forman aurkeztu duten ikasleei dagokiena, sinatua eta zigilatua.

16. oinarria.- Beka baliogabetzea.

Lankidetza-beka ematea honako kasu hauetan baliogabetuko da: beka ematean datuak ezkutatu edo faltsutu baldin baziren, ez bada bateragarria beste pertsona fisiko edo juridikoengandik datozen mota bereko beste onura batzuekin edo deialdiaren oinarriak bete ez badira.

17. oinarria.- Datu pertsonalen babes

1.-Lankidetza-beken deialdi honetan parte hartzeak berekin dakar eskatutako datu pertsonalen tratamendua (izena, deiturak, NANA, AIZA, IFZA, datu akademikoak, bere lankidetza-proiektuari buruzko informazioa, banku kontuaren zenbakia eta deialdiaren helburuetarako beharrezkoak diren beste batzuk). Nafarroako Unibertsitate Publikoa da jasotako datuen tratamenduaren arduraduna, eta araudi hauek bete beharko ditu: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 EB Erregelamendua –2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen– eta 3/2018 Lege Organikoa –2018ko abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa–.

2.-Zure datu pertsonalak, beraz, aipatutako deialdia tramitatzeko eta gauzatzeko tratatuko dira (unibertsitateko ikasleak akuilatzea ikerketa-lanetan lankidetzan jarduteko), Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikuluekin bat etorritik. Kasu honetan, helburu horien oinarri juridikoa ikerketa sustatzea da, dirulaguntzak emanez, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren eta Dirulaguntzei buruzko 2005eko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen arabera.

Zure datuak “SARBIDEAREN, BEKEN ETA TITULUEN ARLOAK” izenarekin erregistratuko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webguneko Datuak Tratatzeke Jardueren Erregistroan.

Lankidetza-beken eskaeren balioespenari dagokionez, ez da erabaki automatizaturik hartuko, deialdiaren oinarrietako 10. eta 11. puntuetan ezarritakoaren arabera.

3.-Sarbiderako, informaziorako eta beste batzuetarako dituzun eskubideak datuak babesteko araudiarekin bat etorritik erabiltzeko helburuz, harremanetan jar zaitezke datuen babeserako delegatuarekin delegado.protecciondatos@unavarra.es. Zure kontsultari behar bezalako arreta ez diotela eman uste baduzu, erreklamazio bat aurkezteko aukera duzu Datuak Babesteko Espainiar Agentziari zuzendua (<https://www.aepd.es/es>).

18. oinarria.- Errekurtsoen araubidea

Deialdi honek eta honen ebazpenak administrazio bidea agortzen dute, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (LOSU) 38.4 artikulua ezartzen duen moduan.

Hori dela-eta, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak– 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin arabera, zilegi da honako errekurtsio hauek jartzea deialdiaren eta ebazpenaren aurka:

- Hala nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa errektorearen kontra, hilabeteko epean, ebazpena Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.
- Administrazioko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena eta oinarri arautzaileak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

ERANSKINA

EGOERA EKONOMIKOA: 4 PUNTU GEHIENEZ

1 puntu:

Kide bateko familia	13.898 €-tik	14.818 €-ra bitarte
Bi kideko familia	23.724 €-tik	25.293 €-ra bitarte
Hiru kideko familia	32.201 €-tik	34.332 €-ra bitarte
Lau kideko familia	38.242 €-tik	40.773 €-ra bitarte
Bost kideko familia	42.743 €-tik	45.572 €-ra bitarte
Sei kideko familia	46.142 €-tik	49.196 €-ra bitarte
Zazpi kideko familia	49.503 €-tik	52.780 €-ra bitarte
Zortzi kideko familia	52.850 €-tik	56.348 €-ra bitarte
Hortik aurrera, kide bakoitzeko		3.561 €

2 puntu:

Kide bateko familia	11.371 €-tik	13.898 €-ra bitarte
Bi kideko familia	18.494 €-tik	23.724 €-ra bitarte
Hiru kideko familia	24.943 €-tik	32.201 €-ra bitarte
Lau kideko familia	30.175 €-tik	38.242 €-ra bitarte
Bost kideko familia	34.194 €-tik	42.743 €-ra bitarte
Sei kideko familia	37.662 €-tik	46.142 €-ra bitarte
Zazpi kideko familia	41.111 €-tik	49.503 €-ra bitarte
Zortzi kideko familia	44.553 €-tik	52.850 €-ra bitarte
Hortik aurrera, kide bakoitzeko		3.340 €

3 puntu:

Kide bateko familia	8.843 €-tik	11.371 €-ra bitarte
Bi kideko familia	13.264 €-tik	18.494 €-ra bitarte
Hiru kideko familia	17.685 €-tik	24.943 €-ra bitarte
Lau kideko familia	22.107 €-tik	30.175 €-ra bitarte
Bost kideko familia	25.644 €-tik	34.194 €-ra bitarte
Sei kideko familia	29.181 €-tik	37.662 €-ra bitarte
Zazpi kideko familia	32.718 €-tik	41.111 €-ra bitarte
Zortzi kideko familia	36.255 €-tik	44.553 €-ra bitarte
Hortik aurrera, kide bakoitzeko		3.438 €

4 puntu:

Kide bateko familia	0 €-tik	8.843 €-ra bitarte
Bi kideko familia	0 €-tik	13.264 €-ra bitarte
Hiru kideko familia	0 €-tik	17.685 €-ra bitarte
Lau kideko familia	0 €-tik	22.107 €-ra bitarte
Bost kideko familia	0 €-tik	25.644 €-ra bitarte
Sei kideko familia	0 €-tik	29.181 €-ra bitarte
Zazpi kideko familia	0 €-tik	32.718 €-ra bitarte
Zortzi kideko familia	0 €-tik	36.255 €-ra bitarte
Hortik aurrera, kide bakoitzeko		3.536 €